


Huhezinemak uzta oparoa jaso du: 41 film labur eta dokumental aurkeztu dira bertan

2008/05/06

Pozik daude Huhezinema film laburren lehiaketako antolatzaileak, alegia, Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari diren 4. mailako ikasleak, eta badute motiborik. Apirilaren 9an amaitu zen epea filmak aurkezteko, eta aldi horretan, **41 film labur** iritsi zaizkie, horietatik **35 fikziozkoak** eta **6 dokumental**. Arrakasta itzela. Egileak gazteak dira: 25 eta 30 urte artekoak, gehienak mutilak.



Orain **epaimahaiari** dagokio galbahea egitea. Epailleak dira bi zine zuzendari (**Jon Andueza eta Jose Mari Goenaga**), HUHEZiko hiru irakasle (**Idoia Astigarraga, Iban del Campo eta Andres Gostin**) eta IKOko bi ikasle (**Mikel Alvarez eta Nerea Ruiz de Azua**), biak 4. mailakoak. Epaimahaiak apirilaren 24an erabakiko du zer film aukeratzten dituzten lehiaketarako.

Egitaraua

Huhezinema maiatzaren 6an, 7an eta 9an egingo da, Arrasaten eta Eskoriatzan.

Maiatzaren 6an

14:00etatik 16:00ak bitartean, Aizpea Goenagak lantegi bat zuzenduko du aktoreen zuzendaritzari buruz, areto nagusian, HUHEZIn.

19:00etatik 22:00etara, HUHEZiko ikasleen film laburrak proiektatuko dira Kulturaten, Arrasaten.

Maiatzaren 7an

14:00etatik 16:00ak bitartean, lantegi bat egingo da HUHEZIn fikziozko zineari eta dokumentalei buruz, Moriarti Produksioak zuzenduta.

18:00etatik 21:00ak bitartean, aukeratutako film laburren proieksioa eta sari banaketa egingo da Kulturaten, Arrasaten.

Maiatzaren 9an

20:00etatik 22:00ak bitartean, saritutako filmak proiektatuko dira Kulturaten, Arrasaten.